



Fiesta – Eguzkia jaikitzen da Ernest Hemingway

Liburua gustura irakurri dut. Lehen-lehenik, nire arreta gehien erakarri duena liburuaren zama "etiliko" izugarria izan da. Mozkortiek mozkortientzat idatziko liburua dela esan daiteke. Baina ondo dago. Harrapatu egiten zaitu. Eta Hemingway-ren estilo bereziak (apainduretan urria, erretorikarik gabea) erakargarria da. Ez du "gehiago" idazten, ez ezin duelako, baina nahi ez duelako. Hori da, behintzat, sorrarazi didan sentsazioa eta atera dudana ondorioa.

Narratzailearekin bat datorren pertsonaia nagusi bat dago: Jacob Barnes, "Jake". Bera da kontaketaaren arima. Narratzaile gisa eta protagonista gisa jokatu du. Narratzaile gisa, estilo urri, neurritsua darabil. Ez du hitzik alferrik galtzen, baina horrek ez du esan nahi narratzeko trebetasuna edo abilezia falta zaionik. Badu, baina dosifikatu egiten du, abilezia hori ekintzaren zerbitzuan jarri nahi duelako; beste idazle batzuek justu kontrakoa egiten dute, eta batzuei primeran ateratzen zaie, beste batzuei ondo edo nahiko ondo, eta beste batzuei... izugarri gaizki. Hemingway-ri oso ondo ateratzen zaio.

Horrez gain, Jake-ren planteamendua zinez erakargarria iruditu zait, gehiago baita esaten ez duenarekin esaten duena, esan lezakeenarekin esango lukeena baino. Jake hitz-urria da, baina ez mutua —eta are gutxiago, pentsamenduz eta asmoz—. Egia esan, Jake-k inguruan dabilzkion pertsonaiei behatu egiten die; haiek gehitxo epaitzen ez dituela ematen du. Haien akatsak edo ahuleziak ikusten ditu, baina baita haien... alde onak ere. Azken batean, zer dira liburu bateko pertsonaiak, egileak barne har ditzakeen edo bereiz ditzakeen bere ni guztiak baino? Eta ni guzti horiek bideratzea edo azaleratzea ez pentsa lan samurra denik.

Pertsonaia bakoitzak bere garrantzia eta bere tokia baditu ere, Jake – nolabait esateko– haien erdigunea da, narrazioaren indar grabitazionala da, zeinaren inguruan orbitatzen baitute gainerako pertsonaiek.

Irakurle batzuek pentsa dezaketenaren aurka, "Fiesta" ez da berez Iruñean hasten; festa liburuaren lehen orrialdean bertan hasten da: Parisen, hain zuzen. Giro bohemioa da nagusi: alkohola, gaua, emakumeak, diru-eskasiak, lagunak, kaleak, auzoak, artistak, idazleak...

Urte asko ez dira igaro lehen mundu gerra amaitu zenetik. Parranda on baten beharra dute. Ziur aski, gerran eta gerraostean bizi izandako esperientziek traumatizatuta daude. Seguruenik, horregatik edaten dute hainbeste, eta haiek guztiak —euren izaerak hartaratuta— gizartearen mugan bizi direlako: artista-arima dute, gizarte "bienpensantean" ez dira oso ondo moldatzen, beren buruaren bilaketak betiereko nerabe bilakatzen ditu...

Baina, esan bezala, festaren lehen zatia Parisen hasten da, eta film zahar bezain txar baten tituluak dioen bezala: "París bien vale una moza". Eta, kasu honetan, "moza" horrek Brett du izena. Eleberriko pertsonaia maskulinoak Brett-enganantz ezinbestean erakarrita sentitzen dira; Brett-ek, bere aldetik, gainerako protagonistek adinako ahalmena du alkohola edateko (eta lagunen ahalmena ez da gutxiestekoa, ez horixe).

Brett apetatsua da, gizonak bere inguruan ibiltzea gustatzen zaio, eta kontzienteki edo inkontzienteki, agian, haiekin jolasten da. Baina konpromisoak gorroto ditu. Maitemindu eta desmaitemindu daiteke abiadura harrigarrian. Ez da kaskarina; haren izaera da. Bera ere festaren parte da, gauaren eta bohemiaren parte. Gizonak erakarri egiten ditu, eta gizonak erakarri egiten dute. Baina Jake-rekin badu harreman berezi eta jarraitu bat, edo hala dirudi, behintzat. Beharbada, Jake gehiegi tematzen ez delako; den bezala onartzen du, eta kito. Edo, ahal bezala onartzen du, eta kito. Beste batzuek ez dute onartzen; Robert Cohn-en kasuan bezala, adibidez. Jake-k eta Brett-ek hasiera berezi bat partekatzen dute euren adiskidetasunean: lehen mundu gerra. Brett, erizaina; eta Jake, fronteko zauritua (zauriak inpotentzia eragin zion).

Robert Cohn judua da, eta haren jatorri judua behin eta berriro aipatua da liburu osoan zehar, eta ez hura gorestekoa, preseski. Alde horretatik, nabaria da igarotako gerra lehen mundu gerra izan dela, eta ez bigarrena (judua

izateagatik egiten dioten irain-andana etengabea ez zatekeen oharkabeen igaroko, bigarren mundu gerraren eta holokausto juduaren ostean planteatu izan balitz). Robert Cohn haien guztien antitesia da, batez ere Fiesta-ren bigarren atalean, hau da, Iruñean.

Baina hitz egin dezagun Fiesta-ren bigarren zatiari buruz, hau da, euskal irakurleen arreta gehien erakarriko duen zatiari buruz: Euskal Herrira egindako bidaiak. Eta bidaiak diot, den-dena ez baita Iruñean gertatzen; eleberria Euskal Herriko beste zenbait tokitan ere garatzen baita, hala nola: Baionan, Donibane Lohitzunen, Miarritzen, Irunen (pasadizoan), Donostian, Auritzen eta, azkenik, Iruñean. Bueno, azkenik ez, zeren San Ferminetako parranda amaitu ostean, Hemingway-k Ipar Euskal Herrian lagunei adio esan eta jarraian Donostiara bueltatzen baita, non oparitzen baitzizkigu hiriaren gaineko deskribapen batzuk, bai eta hiriarekin lotutako zenbait esperientzia ere, "klasikotzat" jo genitzakeenak, eta jakina, haien artean ezin zitekeen falta Kontxako hondartzako bainua: bertako "kabinak" erabiltzen ditu, gabarroiraino iristen da igerian (berak beste modu batez deitzen dio gabarroiari), hondartza ondoko lorategiko zuhaitz bitxiak (Alderdi Ederreko tamarindoak) izugarri gustatzen zaizkio, garai hartako uniformeekin jantzitako neskameak eta umezainak deskribatzen ditu, Donostiako hotel batean gela bat alokatzen du (ez du hotelaren izena aipatzen baina hondartza ondoan dago), portuan ibiltzen da, kasinoaren aurretik igarotzen da eta kopa bat hartzen du Marinas kafetegian ("Gran Café de la Marina"), Euskal Herriko itzuliaren berri jakiten du, frantsesez hitz egiten duten neska batzuen ondoan esertzen da, berriz ere Kontxara itzultzen da beste bainu bat hartzera, hondartzako harea fina aipatzen du, itsasgora, gaztelu bat daukan mendi bat (Urgull), gabarroitik hondartzan daudenak txiki-txiki ikusten direla dio (bai, hala gertatzen da itsasgoran, hori ederki dakigu donostiarrok), eta abar, eta abar.

Iruñera joan baino lehen, autobusa hartzen dute, Auritzen —Irati aldean— amuarrainak harrapatzera joateko. Eta hor, autobusaren bidaiak deskribatzen digu: paisaia, bidaiariak, jende xumea, zahatoa; eta gero herria, giroa, ostatua... Harris izeneko ingeles bat ezagutzen dute; bakarrik dago, hura ere arrantzatza etorri da. Ziur aski, lehen mundu gerrak traumatizatuta dagoen beste bat da. Norbait ezustean ezagutzea protagonisten bizimoduaren parte da. Ez da harrigarria. Atzerrian daude, eta amerikar edo

ingeles batekin topo egitea beti da gertaera "txiki" bat, normala denez (pentsa Minnesotan zehar bidaiatzen ari garela eta bat-batean euskaldun batekin topo egiten dugula). Garai hartan halako atzerritar askotxo ibiliko ziren han-hemen, apur bat aberrigabeak, apur bat marjinalak, aski alkoholizatuta... Pentsatzen dut haietako askok Europa ezagutuko zutela lehen mundu gerraren kariatz; eta, akaso, ordaina nahi zuten; beste Europa bat ezagutu nahi zuten, gerraren horroreez harago; beti festan zebilen Europa bat.

Baina eleberriaren benetako lurrikara Iruñean gertatzen da. Han, jaia deskribatzen da Hemingway-k ezagutu zuen bezala. Protagonista anglofonoak hauek dira: Robert Cohn, Jake, Brett, Michael Campbell (Mike) eta Bill Gorton. Edateko daukaten ahalmena itzela da. Eta protagonista natiboak, nik esango nuke batez ere bi direla: Pedro Romero, eta neurri txikiago batean, Montoya.

Pedro Romero toreatzailea da; Brett hartaz maitemintzen da eta Jakek, gogoz kontra bada ere (esan bezala, Jake-k ere sentimendu handi eta indartsu bat sentitzen baitu Brett-ekiko), "zelestinoarena" egiten du. Robert Cohen-ek maitasun-harreman bat izan zuen Brett-ekin... non eta Donostian! Mike Brett-en senargai ofiziala eta taldeko mozkorti nabarmenena da. Eta nik esango nuke Bill Gorton dela Brett-en liluren aurrean immunea den bakarra. Guztiori ondo bustita alkoholarekin, alkoholarekin eta alkohol gehiagorekin.

Montoya ere aipa genezake, bere izena daraman hotelaren jabea alegia (izen hau fikziozkoa da, baina hezur-haragizko pertsona bat du oinarrian: Juanito Quintana, Hotel Quintana-ren jabe, zeinekin Hemingway-k adiskidetasun bat izan baitzuen, bizitza osoa iraun zuena)¹.

Azkenik, gainerako protagonista natiboak Iruñeko eta Nafarroako herritarrak izango lirateke gehienbat, baina atzerritarrak ere badaude (australiar talde bat, esaterako —zeinekin liskarrean eta mutur-joka amaituko diren—, frantziarrak...), Espainiatik eta inguruko lurraldeetatik (Donostiatik) etorritakoak, eta abar.

¹ <https://www.pamplona.es/turismo/hemingwayhotelquintana>

Eta, zer gehiago esan dezaket liburu honi buruz? Esan bezala, gustura irakurri dut; Hemingway-k Euskal Herriari buruz egindako aipamenak zoragarriak iruditu zaizkit. Giri-usainik, agian? Bueno, atzerrian gaudenean denok garen bezala. Baina Hemingway ez da turista soil bat; hori baino gehiago da. Besteak (eta bere burua) ezagutu nahi ditu, besteekin (eta bere buruarekin) identifikazio bat bilatzen du, lekuak ulertu nahi ditu, zahatoa pasatzen dioten pertsona horietako bat izan nahi du, zezenzale ona da (toreatzaile on bat antzematen du, toreatzeko teknika ikasia du...). Ez alferrik, zerbaitek bulkatu zuen Espainiako gerra zibilean parte hartzera. Eta gainera, errepublikanoen bandoan. Hemingway "gizaki herrikoia" zerbait du, herriarekin egotea gustatzen zaio, bera ezagutu gabe zahatoa helarazten dioten edo euren mahaian esertzera gonbidatzen dutenak estimatu egiten ditu.

Hemingway-k kopia asko izan zituen Estatu Batuetan; bat-batean, denek nahi zuten bera bezalakoak izan: ondo pasatu, parrandan ibili, entzierroetan parte hartu eta korridak ikusi... Dena den, klon horietako gutxi heldu ziren Espainiako gerra zibilean parte hartzera, adibidez... Dena den, zuzenak izatera, ez litzaidake bat ere harrizko klon horietako asko beste gerra batzuetan borrokan ibili izan balira, adibidez, II. mundu gerran, edo Vietnamentan, edo auskalo non. Agian, horregatik identifikatzen ziren pertsona hautsi horiekin: gerra batetik bizirik aterak, psikologikoki joak, erreka joak, galduak, deserrotuak, alkoholizatuak...

Eleberrian pertsonaia asko agertzen dira eta segituan desagertu. Haietako batzuek eleberriaren "gune gogorra" osatzen dute; beste batzuk, berriz, iragaitzaz daude. Liburuaren bilbea garatzen den giroari buruz pintzelkada arin baina esanguratsu bat emateko erabiltzen ditu egileak. Parisen bakarrik azaltzen diren pertsonaiak daude; bidaiari baino ez dira agertzen beste batzuk; gero, Iruñean bakarrik agertzen diren pertsonaiak ditugu; eta azkenik, eleberri osoan agertzen direnak. Oro har, pertsonaiak ez daude oso puztuta. Iruñekin labur batzuk nahikoak dira haiek deskribatzeko; eta segituan, oso litekeena da "mapatik" desagertzea.

Bitxia da, baina Jake protagonista nagusi eta zuhurak sufritzen duen inpotentzia ia-ia oharkabean igaro zait, eleberrian bidenabar-edo baino ez da aipatzen eta (liburu honetan gauza garrantzitsu asko aipatzen diren

bezala, bidenabar-edo). "Fiesta" liburuari buruz egiten diren iruzkinetan eta aipamenetan beti mintzatzen da horretaz, protagonistaren inpotentziaz, baina ez da eleberriaren "euskarrietako bat" edo. Protagonistarentzat garrantzia izango du, nola ez. Baina, nire ustez, pertsonaiek, gerraren esperientzia ikaragarrien ondorioz, eta akaso beste arrazoi pertsonal batzuen ondorioz ere bai, herrestan daramatzaten zauri fisiko eta psikologikoetako bat baino ez da. Azken batean, pertsonaia guztiek sufritzen dute inpotentzia-mota bat edo beste: inpotentzia animikoa, inpotentzia existentziala, barne-inpotentzia. Beharbada, bizitza normal bat bizitzeko inpotentzia. Bizitza "normaltasunez" bizitzeko inpotentzia-suerte bat.

PERTSONAIEN ZERRENDA²

Ondoko pertsonaien zerrendan, **urdinez** nabarmenduta dauzkazue nobelako pertsonaiarik garrantzitsuenak, **orlegiz**" hain garrantzitsuak ez direnak, eta gainerakoak nabarmendu gabe utzi dituzte.

- **Robert Cohn**: (boxeolari ohia, idazlegaia, judua, lagunartekoa)
- Spider Kelly: Robert Cohn-en boxeoen-trenatzailea (aipamen hutsa)
- Braddocks: Robert Cohn-en laguna
- **Frances Clyne**: R. Cohn-en emaztegaia (esposatzekotan dira, Brett-en atzetik joateko abandonatzen duen arte)
- **Jacob Barnes, "Jake"**: protagonista nagusia eta narratzailea
- Georgette Leblanc: Jake-k gau batean ezagutzen duen neska bat, prostituta
- Robert Prentiss: nabarmen hasitako nobelagile bat
- **Brett (Lady Ashley)**: lagunarteko neska, erakargarria, jatorri aristokratikoa omen du, lehen mundu gerran erizaina izan zen eta hantxe ezagutu zuen Jake, zauritu zutenean, eta zauri horren ondorioz, inpotentea geratu zenean.
- **Mippipopolus**: Kondea, Parisko gaueko pertsonaia, zaharra, Brett-ekin dabil beti.
- Zizi: Margolaria eta Mippipopolus kondeak mantendua (aipamen hutsa).
- Krume: Kazetaria.
- Woolsey: Kazetaria.
- Harvey Stone: ez dago oso garbi pertsonaia honen lanbidea zein den, baina edale porrokatua, erreka jota dagoen jokalaria da...
- Mencken: Idazlea.
- **Michael Campbell (Mike)**: Brett-ekin ezkontzekoa da, baina beste batekin ezkontuta dago oraindik.
- **Bill Gorton**: Idazlea, Jake-ren laguna.
- Harris: Ingeles bat (Auritzen topatu dutena).
- **Montoya**: Izen bereko Hotelaren jabea.

² Ondoko estekan, nobelako pertsonaia nagusien deskribapen on bat topatuko duzue (ingelesez dago): <https://www.sparknotes.com/lit/sun/characters/>

- [Pedro Romero](#): Toreatzailea.

ANJEL LERTXUNDIREN HITZAURREAREN HARIRA

Anjel Lertxundik argitalpen honetarako idatzi duen hitzaurrean atentzioa eman dit, zehazki, eskutitz batzuei buruz egiten duen aipamenak, non Hemingway-k aitortzen baitu 122 soldatu alemaniar atxilotu eta fusilatu zituela bigarren mundu gerran zehar.

Egitate horiek frogatu ez badira ere, haien berri dakigu idazleak idatzitako eskutitzetan hark berak hala baieztatzen duelako. Antza denez, Ernest Hemingway, alde horretatik, Clint Eastwood-en antzekoa zen, neurri batean: txo gogor bat, zurruteroa, armen zalea, ehiztari porrokatua... Hala ere, batzuek uste dute kontu hori gezurra izan daitekeela, eta Hemingway-k bakarrik bilatzen zuela bere "alfa ar" irudia goratzea.

Nolanahi ere, ez dakit hori inportantea den. Liburu bat daukat, eta, printzipioz, ni liburu horretaz hitz egitera mugatzen naiz, egilearen biografiaren alderdirik eskandalagarrienak alde batera utzita, zeren, alderdi horiek batez ere prentsa arrosari inportako baitzaizkio gehienbat.

Bestalde, armarik gabeko gatibuak hiltzea ez dago ondo, baina naziak armarik gabeko atxilotuak eta batez ere armarik gabeko zibilak hiltzen adituak izan ziren. Gernika edo Durango bonbardatu zuten hegazkinetako bat artilleriaz jo eta pilotua bizirik atxilotu izan balute eta jarraian epaitu gabe fusilatu, ez nintzatekeen ni izango haren alde aterako zena, eta une honetan ere ez nintzateke arituko Genevako Konbentzioa errepasatzen erabakitzeke soinekoak urratu behar ditudan ala ez, edota azalpenak inori eskatu behar dizkiodan ala ez.

Bigarren mundu gerran Alemaniako soldadu-osteen jokabidea zinez higuinaria izan zen; egia esan, populazio zibilaren aurka burutu zituzten hilketek eta genozidioek oraindik ere durundi egiten dute guztion oroimen unibertsalean. Eta badakizue esaera zaharrak zer dioen: gorrotoa ereiten duena...

Antzeko zerbait gertatzen da Errusiako armadak Berlinerantz aurrera egin ahala burutu omen zituen bortxaketa ugariekin, behin alemaniarren lurraldean sartuta. Bai, ziur aski horrelako zerbait gertatu zen. Baina, nik zer esatea nahi duzue? Naziak ez ziren Errusian sartu hura konkistatzeko;

suntsitzeko baizik. Errusiako lurretan zehar aurrera egin ahala, errusiarren bizitza infernu bihurtu zuten. Ez zuten deusik errespetatu: ez emakumeak ez agureak ez haurrak... Deusik ez. Ez zuten Errusia konkistatu nahi, suntsitu baizik! Ezaugarri kaukasoarrak zituzten "behe mailako izaki haiek" ezabatu eta haien ordeaz begi urdineko eta aingeru itxurako kerubinak jarri nahi zituzten. Eta Errusiako lurraldeetan zehar aurrera egin ahala, ez etxalderik ez gizakirik ez zuten tente utzi. Lur errearen taktika aplikatu zuten. Eta Errusiako emakumeak harrapakinarekin parte bihurtu ziren. Beraz, errusiarrek lortu zutenean egoerari buelta ematea eta nazien Alemanian sartzea, imajina ezazue nolako gogo-aldarteak zeukaten eta zer zebilkien buruan. Bigarren mundu gerrak Europan utzi zituen hildakoen erdiak kasik, Errusiak jarri zituen, adituen esanetan. Horrekin dena esanda dago.

Genevako Konbentzioa ondo dago, bai, baina konbentzio horretan sinesten dutenentzat eta hura errespetatzen dutenentzat soilik. Beharbada, Ernest Hemingway gaztea nazien aurka Europan borrokan zebilen bitartean, ondorio horretara helduko zen bera ere, nazien izugarrikeriak, kontzentrazio zelaietako horrorea eta alemaniarren sarraskiak munduko punta batetik bestera zabaltzen ziren bitartean...

Orainalditik abiatuta, joandako garaiei buruzko epai salomonikoak egitea erraza da. Koska, ordea, zera da: hala hasiz gero, azkenean ez al diogu uko egingo geure historiari, gizakiaren historiari berari? Azken batean, primate eboluzionatuak baino ez gara. Gure arbasoak basa animaliak izan ziren. Zer egin behar dugu orain? Altamirako Haitzulora joan eta harrobi bihurtu? Ekain haitzuloa dinamitatuko al dugu? Geure arbasoen hondakin fosil guztiak bildu eta desagerraraziko al ditugu giza eskubideen izenean? Azken batean, nork nahi du onartu gure jatorria basapiztien jatorri berbera dela?

Azkenik, eta neurri jakin bateraino gaiez aldatuz, Ernest Hemingway eta euskal espioiak hizpide dituen esteka bitxi bezain jakingarri bat uzten dizuet, deigarria gutxienez irudituko zaizuelakoan. Ez naiz historialaria, baina zinez originala da. Hementxe duzue:

<https://www.elnortedecastilla.es/sociedad/hemingway-espas-vascos-20200309164327-ntrc.html>